

Erromatar bidea

Erromatarren galtzadak baliabide garrantzitsua izan ziren erromanizazioan. Bide horiek ahalik eta zuzenen egiten zituzten, garrantzi handieneko guneean, hala nola hiri handietako ingurunean. Arreta handiz egiten zituzten: haien profilek muino itxura zuten, ura alboko arroiletatik joan zedin; zimentazioak geruza batzuk zituen, drenaje bereziz horniturik. Bide ertzetan *miliaria* izeneko mugarriak ezartzen zituzten erromatar milia bateko distantzia adierazteko, hau da, 1.478,5 metro bakoitzeko. Italian, *miliaria* horiek Erroma hartzen zuten abiapuntutzat distantzia adierazteko, eta probintzietan hiriburu edo hiri garrantzitsuenetik abiatzen ziren. Inskripzio bat izan ohi zuten, galtzada egin edo konpondu zuten agintarien – magistratuen edo enperadorearen– izenekin.

- Hau Asturica-Burdigala (Astorga-Bordele) bidea da, erromatarren garaian Euskal Herria zeharkatzen zuen nagusia, eta Iberiar penintsulako iparraldeko lehorreko bide garrantzitsuenetako bat. Araban, hainbat herrigune zeharkatzen zituen: Cabriana, Iruña, Salbatierrabide (Gasteiz), Arkaia, Angostina eta Abeiurmendi. Nafarroan, Aracillum (Arakil inguruan), Alantone (Atondo), Pompaelo (Iruñea), Iturissa (Aurizberri) pasa eta gero, Pirinioak zeharkatzen zituen Orreaga-Ibañetatik (Summus Pyreneus) eta Donibane-Garazira (Imus Pyreneus) iristen zen. Ibilbide hau, erromatarren ondoren ere erabiltzen jarraitu zuten.
- Pompaelo–Oiasson (Irun) galtzadak portu hori barnealdearekin komunikatzen zuen. Ibilbide osoak –Tarraco-Caesaraugusta-Pompaelo-Oiasson– Mediterranea eta Bizkaiko golkoa lotzen zituen.
- Bide honek Ebroko ibarra zeharkatzen zuen. Deobriga (Cabriana) eta Caesaraugusta (Zaragoza) lotzen zituen, eta bere ibilbidean Calagurris (Kalagorri), Cracchurris (Alfaro) edo Cascantum (Cascante) hiriak zeharkatzen zituen.
- Flaviobriga (Castro Urdiales) eta Deobriga (Cabriana) lotzen zituen bide hau, bigarren mailakoa izanik ere, aski garrantzitsua zen, zeren eta Ebroko ibarra eta Bizkaiko golkoa jartzen baitzituen harremanetan. Flaviobriga Euskal Herriaren inguruko kokagune nagusia zen eta galtzada horretan ere Las Ermitas (Getaria) dago, seguruenik Arabako hirigunerik garrantzitsuena, Iruñaren ondoren. Barnealdeko hainbat kokagune eta kostaldeko herriak lotzen zituzten bideetarik nagusia zen hura. Kontuan hartu beharra dago gehienbat itsasotik bideratzen zela erromatarren munduko merkataritza.